

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/06/25

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Maitane Larruskain Agirre

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

Agustin Lekuona

AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. EH bildu taldeak, Kubaren aurkako blokeoa altxatzeko mozioa aurkezte zuen Osoko Bilkuran eta onartua izan zen.
3. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga, 2025. urteko erroldari erreklamazioak aurkeztu eta onartuak izan ziren.
4. Hainbat ordainagirien berrikuspenak egin ziren eta dagozkien itzulketak onartu ziren.
5. 2024ko Kontu Orokorra onartu zen.
6. Hezkuntza Sailaren eta Oiartzungo udalaren arteko lankidetzeta-hitza armena onartu zen. Elizalde udaltitulartasuneko ikastetxea DBHren irakaskuntzari atxikitze eta ikastetxeen kontserbazio-, mantentze- eta zaintza-gastuak finantzatzeko.
7. Beste organoen jardueraren jarraipena burutu zen.
8. Eskari-galderatan, EH Bilduk galdera bat egin zuen Udala eta Hezkuntzaren arteko hartu emanen inguruan.

Esan-eginak eta erabakiak

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko maiatzaren 28an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta eta 2025eko ekainaren 6an Udal Osoko ez-ohiko bilkuraren akta onartu ziren aho batez, aldeko 14 botorekin (EH Bildu 12, EAJ/PNV 2)

-II-

EH BILDU TALDEAK, KUBAREN AURKAKO BLOKEOA ALTXATZEKO MOZIOA AURKEZTEN DU OSOKO BILKURAN AZTERTUA IZAN DADIN.

Alkateak hitza hartzen du. Bertaratutakoak gaian sartze aldera, EH Bilduk aurkeztutako mozioa irakurtzen du alkateak.

“Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak Kuba "terrorismoa babesten duen estatutzat" jotzea zinikoa eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa argia da. Izendapen hori 2015ean kendu zuen Obama administrazioak, ebaluazio sakon bat egin ostean; alabaina, Trumpek bere aurreko legegintzaldiko aginteko azken egunetan berriro ezarri zuen, Kubaren aurkako gerra ekonomikoaren azken ekintza gisa. Izendapena ankerra da, Kubako herriari ahalik eta sufrimendu handiena eragiteko diseinatuta baitago: bere ekonomia ito egiten du, familiak lekualdatzera behartzen ditu eta laguntza humanitarioaren fluxua ere murrizten du. Nazio Batuetako adituen arabera, izendapen horrek "oinarizko giza eskubideak ahuldu ditu, hala nola elikadura eskubidea, osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, eskubide ekonomiko eta sozialak, bizitzeko eskubidea eta garapenerako eskubidea".

Izendapena ilegala da, "estatuen berdintasun subiranaren printzipioa, estatuen barne kontuetan esku hartzea debekatzea eta gatazka nazioartekoak modu baketsuan konpontzeko printzipioa" urratzen baititu NBEko aditu juridikoen arabera. Izendapenak eragindako muturreko eta lurraldez kanpoko zigorrak, beraz, nazioarteko zuzenbidearen urraketa argia dira.

2024ko maiatzean, AEBetako Estatu Departamentuak, azkenean, Kuba "terrorismoaren aurkako borrokan AEBekin guztiz ez kolaboratzeagatik" zigortzen zuen zerrendatik kendu zuen. Baina hori ez da nahikoa. Kuba oraindik pairatzen ari da ekonomiaren esparru internazionalan bere bazterketa ziniko, anker eta ilegalaren ondorioak.

2025eko urtarrian, egun gutxiren diferentziarekin, Biden administrazioak Kuba "terrorismoa babesten duten estatuen" zerrendatik kendu zuen, eta nazioarteko komunitateak pozik hartu zuen erabakia. Hala ere, ondoren Trump administrazioak berriz ere "terrorismoa babesten duen estatu" gisa izendatu zuen Kuba, eta horrek berriz ere ondorio larriak eragin ditu Karibeko herrialdearentzat.”

Alkateak irakurtzen amaitzen du eta Janire Mitxelena zinegotziak hartzen du hitza, ondorengo irakurritz.

“Oiartzungo EAJ-PNVtik kezka partekatzen dugu nazioarteko hainbat erabakik herritarren bizitza eta ongizatean izan dezaketen eragin zuzena dela eta. Kubako herriak bizi duen egoera ez zaigu arrotza, eta are gutxiago sufrimendua handitzen duten neurri ekonomiko edo diplomatikoen ondorioak ikusita. Gure ustez, giza eskubideak unibertsalak dira, eta horien urraketa edo mehatxua ez da inongo testuingurutan onargarria. Hala ere, gogorarazi nahi dugu mozio honek planteatzen duen gaia (AEBetako Gobernuaren erabaki zehatz bat, Kubaren izaera diplomatikoari buruzkoa) ez dela gure udalaren eskumenekoa, eta gainera, ez duela inolako harreman zuzenik Oiartzun udalerriarekin.

Argi utzi nahi dugu: AEBetako zigorrak eragina dute, bai, baina ezin dugu ahaztu Kuba barruan ere herritarren askatasun eta eskubide zibil ugari murriztuta daudela. Kubako Gobernuari ere exijitu behar

zaio urrats sendoak eman ditzala giza eskubideak bermatzeko eta barneko askatasunak zabaltzeko. Gizarte zibil askok, nazioarteko erakundeek eta LGTBIQ+ kolektiboek ere horixe bera salatu dute. Gogoan izan, gainera, ekainaren 28a LGTBIQ+ eskubideak aldarrikatzeko eguna dela, eta Kuban oraindik oztopoak eta diskriminazioa bizi dituztela pertsona horiek. Ez da dena kanpoko blokeoaren kontua: Kubako gizarteak bere baitan dituen gabeziak ere kontuan hartu behar dira. Herritarren askatasun demokratikoak, adierazpen-askatasuna, komunikabideen askatasuna eta desadostasuna modu librean adierazteko eskubidea oso mugatuta daude gaur egun. Hori guztia kontuan hartuta, gure taldeak abstentzio arduratsua egingo du. Ez sufrimendua ukatuz, ezta egoerarekiko axolagabekeriak ere, baizik eta Udalaren funtzio instituzionala eta zorrotasun politikoa zainduz. Beti kritikotasunetik eta errespetuzko diplomaziaren alde eginez.”

Alkateak dio, ados daudela ez dela zuzenean Udalaren eskumenetan sartzen, baina beste herrialdeetan horrelako gatazkak sortzen direnean udalak beti batzar honetara ekarri dituela eta ulertzen dute hau ere bertan landu beharreko gaia dela.

Janire Mitxelenak erantzuten du esanez, Kubatarrak oraindik oinarrizko eskubidek urratzen dituztela, horien artean LGTBIQ+ kolektiboenak.

Jexux Olaziregik zinegotziak azpimarratzen du Kuban dagoeneko homosexualak badutela ezkontzeko aukera eta ez duela uste zentzu horretan LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak urratzen direnik eta horrela bada gehiago zehaztu beharko litzatekeela.

Horiek horrela, alkateak hitza hartu eta bozketara pasatzen dira.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu,
Aurka		
Abstentzioa	2	EAJ/PNV

ERABAKI-PROPOSAMENA

1. Oiartzungo Udalak Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari eskatzen dio Kuba terrorismoa babesten duten estatuen zerrendatik kentzeko.
2. Oiartzungo Udalak Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen dio neurri irmoak eta berehalakoak har ditzala Kuba zerrenda horretatik kentzea sustatzeko.”

-III-

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGA, 2025. URTEKO ERROLDARI ERREKLAMAZIOAK

Alkateak azaltzen du, urte osoan sortzen diren erreziboen inguruan jasotako erreklamazioak direla eta besterik gabe aztertu ondoren dagozkion tramiteak egiten direla. Bozketa pasatzen dira.

Hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenena.- Trafikoko Zuzendaritza Orokorrean, ibilgailua Oñartzunen baja izateagatik baliogabetu beharreko ordain-agiriak, ordainduak egonez gero itzuli beharrekoak:

Izena	Matrikula	Baja	Ordain	Kuota €
ECENARRO, ITURRIOZ, IÑAKI	1655-HBW	2024/04/19	2025 01 3315	166,19
OSORTO, ESPINAL, ROXELY CARMEN	6215-CPD	2024/02/21	2025 01 8699	166,19
EASO MOTOR SA	1472-MLD	2024/12/30	2025 01 3303	43,85
KHAZZANI, MANSOURI, ABDELKADER	LO-0028-U	2019/10/30	2022 01 5876	158,15
			2023 01 6224	160,52
			2024 01 6279	162,93
			2025 01 6179	166,19

Bigarrenena.- Erruz tarifa okerrarekin sortu eta baliogabetu beharreko ordain-agiriak, baliogabetu eta tarifa zuzenarekin ordezkoko berriak sortu beharrekoak:

Zergaduna	Matrikula	Ordainag	Poten/karg	Tarifa	Kuota €
HERRERO, PEREZ, JOSE MARIA	7980-BKF	2025 01 5231	16,29 HP	05	299,14
Berria egin Tarifa zuzena			1,440 TM	21	225,83

Hirugarrenena.- Salbuetsia edo hobaria izateagatik baliogabetu beharreko ordain-agiriak, kuota zuzenarekin ordezkoko berriak sortu beharrekoak:

Zergaduna	Matrikula	Ordaing.	Kuota €
MENDIZABAL, ARRIETA, IÑIGO Ordezkoa egina.	6761-MSZ	2025 01 7533	99,71

-IV-

HAINBAT ORDAINAGIRIEN BERRIKUSPENA ETA BADAGOKIE, DIRU ITZULKETA

Alkateak aurkeztutako erreklamazioak azaltzen ditu, bat ur matxura batek sortutako errezioboaren kopurua erreklamatzeko da eta beste biak ur kontagailuak emantako irakurketa okerrengatik sortutako gehiegizko gastuak erreklamatzeko dira.

Erreklamazioak aztertu ondoren hauek onartzea proposatzen da.



Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Nicolas Urdampilleta Lecuonaren izenean dagoen 2024/03 epeko uraren ordainagiria baliogabetzea (ordaindua balego itzultzea) eta ordezeko berria sortzea, kontadore horrek jarduera arruntean daukan bataz besteko kontsumoarekin, 78m³ko kontsumoarekin.

Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : URDAMPILLETA,LECUONA,NICOLAS IFZ/PAS: 15866319E
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

3 2024 03 4426 0 URA-ESTOL-ARKALEKO BIDEA 1 1 332,10

Ordezko ordainagiria:
2024/03 Kontsumoa 78m³

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
Ura-est	11,98	1,29	78	100,62	112,60
BEZ	0,1				11,26
Kanona		0,03	78	2,34	2,34
		Guztira €			126,20

2025ER070009:

Fernando Barreiro Cabanelasek 2024/03 epeko ura-estolderiaren ordainagiria berrikusteko eskaera egin du gehiegizko kontsumoa jasotzen duelako.

Ur errolden oinarritzko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, ondorioztatzen da Bidegaina 18,1-B etxebizitzari dagokion 2024/03 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaiola kontagailu aldatzearen eta irakurketak bat ez etortzearen ondorioz Kontagailuaren funtzionamendu okerraren ondorioz 2023/03 epetik 2024/02 epera bitarteko ordainagiritan ez da kontsumorik jaso eta 2024/03 epean gehiegizko kontsumoa ipini zaio.

Oiartzungo udalerrian uraren kudeaketa arautzen duen Erregelamenduan 79. Art. ezarrita dagoen hau da. “Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi izan zen momentuan abonaturako pertsona ez zegoelako bertan edo Udalari egotz dakizkiokeen bestelako arrazoiengatik, kontsumoaren fakturazioa, denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da”.

Bidegaina 18,1-B etxebizitzari dagokion 2024/03 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaio 2023/03 epetik 2024/03 epera emandako kontsumoagatik.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Epe horietan emandako kontsumo erreala ezagutzerik ez dagoenez gero, 2024/03 epeko uraren ordain-agiria baliogabetzea (ordaindua balego itzultzea) eta ordezkoko berria sortzea, denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoen arabera.

Uretako teknikariak emandako datuen baitan bataz-beste 78 m³ ko kontsumoa dauka Bidegaina 18,1-B etxebizitzak hortaz, 204/03 epean 312m³ kobratu beharko zaizkio, 2023/03 epetik 2024/03 epera bitarteko kontsumoari dagokiona.

Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : BARREIRO,CABANELAS,FERNANDO

IFZ/PAS: 44152086K

O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua

Ego. Ep Zenbatekoa

3 2024 03 764 0 URA-ESTOL-BIDEGAINA KALEA 1 578,29

Ordezko ordainagiria:

2024/03

Aurreko irakurkerta 0m³ Irakurketa berria 312m³ Kontsumoa 312m³

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
Ura-est	11,98	1,29	312	402,48	414,46
BEZ	0,1				41,45
Kanona		0,03	312	9,36	9,36
		Guztira €			465,27

2025UZ030003:

Pedro M Berra Lasak bere izenean sortutako 2024/03 epeko ura-estolderiaren ordainagiria berrikusteko eskaera egin du gehiegizko kontsumoa jasotzen duelako.

Ur errolden oinarritzko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, ondorioztatzen da, Pedro M Berra Talaia Poligonoa 4.B, 00-016 lokalagatik dagokion 2024/03 epeko uraren ordainagirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaiola irakurketa okerra jaso delako. Kontadore aurrean kamioi bat egoten da aparkatuta eta honek irakurketa hartzea zailtzen du.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Pedro M Berra Talaia Poligonoa 4.B, 00-016 lokalagatik dagokion 2024/03 epeko uraren ordainagiria baliogabetzea (ordaindua balego itzultzea) eta ordezeko ordainagiria sortzea, irakurketa zuzenak jasoko dituen. Horrela, aurreko irakurketa 2548m³, azken irakurketa 2548m³ eta 0m³tako kontsumoarekin sortuko da 2024/03 epeko ordezeko ordainagiria.

Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : BERRA,LASA,PEDRO M IFZ/PAS: 15990462B
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

3 2024 03 852 0 URA-ESTOL-TALAIA POLIGONOA 1 180,12

Ordezko ordainagiria 2024/03

Aurreko irakurketa:2548 m³ Egungo irakurketa:2548 m³ Kontsumoa 0m³

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
Ura-est	70,15	3,20	0	0,00	70,15
BEZ	0,1				7,02
Kanona		0,03	0	0,00	0,00
		Guztira €			77,17

-V-

2024KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Alkateak adierazten du, ez duela azalpenik eman behar, zalantzarik eduki ezean kontuhartzailearekin hitz egitea dela hobena.

Zalantzarik ez dagoenez, bozkara pasatzen dira.



15 egunez jendaurrean egon ondoren, erreklamaziorik egon ez denez, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Behin betiko onartzea.

-VI-

HEZKUNTZA SAILAREN ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ELIZALDE UDAL TITULARTASUNEO IKASTETXEA DBHREN IRAKASKUNTZARI ATXIKITZEKO ETA IKASTETXEEN KONTSERBAZIO, MANTENTZE ETA ZAINZA GASTUAK FINANTZATZEKO

Alkateak azaltzen du, 1997. Urtean Hezkuntza Sailak eta Oiartzungo udalak, Elizalde HLHI ikastetxe publikoa derrigorrezko bigarren hezkuntza emateari afektatzeko eta ikastetxearen kontserbazio-, mantentze- eta zaintza-gastuak finantzatzeko.

Lankidetza-hitzarmen hori indargabetu egin da 2024ko urriaren 2an, eta beste hitzarmen bat izapidetu behar da, CEIP Elizalde HLHI ikastetxe publikoak derrigorrezko bigarren hezkuntza emateari afektatua jarraituko baitu.

Beraz, horiek horrela hitzarmen berri bat sinatzean proposatzen du, txostenean azaltzen diren xehetasunekin.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra aipatutako gastuak finantzatzeko dituela dio alkateak.

Idazkariak hitza hartzen du. Zehaztu nahi du alde batetik, gai hau ez dela batzordetik pasa, deialdia bidali zen egunean bertan, hau da ekainak 20ean aurkeztu zuelako Hezkuntza sailak udalean eta premiazko gaia izanik, deialdira gehitu zen batzordean lantzeko. Beraz, premiazko arrazoiengatik Udal Osoko Batzan lantzeko, bozkaz onartutako gai bat izan behar duenez, Idazkariak Alkateari bozkaketa egiteko proposatzen dio.

Bestalde, Udalak alegazioak aurkeztu dizkiola hitzarmen honi. Legeak dionaren arabera, lehen eta bigarren hezkuntza zentro berdinean kokatzen direnean, hitzarmen bidez kudeatzen dira eta mantenu gastu horiek Eusko Jaurlaritzari dagozkiola, baina gehienetan Eusko Jaurlaritzak emandako finantzazioa nahiko eskas geratzen da gastu horiei aurre egiteko. Alegazioak ez etsiak izan zirenez eta beste aukerarik ez zegoenez, hitzarmenarekin aurrera jarraitzea proposatzen da.

Alkateak hitza hartzen du, premiazko gai den ala ez adierazteko. Aldeko botoak kontatzerako momentuan, denek adostasuna adierazi dute hortaz, aho batez onartu da gaia Udal Osoko batzan lantzea.



Ondoren, Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariak eta Kontuhartzaileak emandako txostenekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea Hezkuntza Sailaren eta Oiertzungo Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, CEIP ELIZALDE HLHI ikastetxe publikoa derrigorrezko bigarren hezkuntza emateari afektatzeko eta ikastetxearen kontserbazio-, mantentze- eta zaintza-gastuak finantzatzeko (eranskinean jasota geratu dena).

Bigarrena.- Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

-VII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko maiatzaren 24tik ekainaren 20ra arte.
Zk. 2025/950tik 2025/1151ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko ekainaren 10ean eta ekainaren 24ean, hain zuzen ere.

- Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko ekaina:

Bazkariak, luntxak,	137,50
Bidaia	111,60
Guztira	249,10

-VIII-

ESKARI-GALDERAK

EAJ/PNV-ko bozeramailea den Janire Mitxelenak, Eskolako egoeraren nondik norakoa jakin nahi zuela adierazi du, ea Udal Gobernuak erabakirik hartu duen gaiaren inguruan edo zerbait planteatzekotan dauden.

Alkateak galderari erantzunez adierazten du, oraindik ez dutela erabakirik hartu, pasa den azaroan Hezkuntza sailak esan ziela dirulaguntzak moztuko zituztela eta Partzuergoa txertatzea erabakitzen bazuten prozedura aldatu beharko zela eta oraindik ez dute azaldu zein de prozedura hori. Oiertzungo udala dagoen egoera berdinean daudela beste hainbat herri.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:18ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute,

bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

